

# Zu publikora eta ni pribatura? Espazio publikoen eta pribatuen arteko harremanak aztertzen.



*Laburpena: Espazio publikoetatik autoak tabernen aulkiek ordezkatu dituzten bitartean, espazio horiek jatorriz dituzten arazoei —diseinua, gure klima, eta abar— aurre egin gabe, eraikin pribatuak —merkatuak, museoak, eta abar— espazio publikoak eskaintzen saiatzen dira. Bestelako aukerarik ote dago?*

*Abstract: As bar terraces have replaced cars in public spaces failing to solve problems that are specific to these areas —of design, local climate, etc.—, private buildings —markets, museums, etc.— attempt to offer public spaces. Aren't there other options?*

Jose Javier Fernandez Altuna  
Artearen Historian lizentziatua eta  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako  
irakaslea

Gako-hitzak: arkitektura, publikoa, Keywords: Architecture, Public, Private, pribatua, hirigintza. Urban planning

Jasotze data: 2015-03-30 / Onarpen data: 2015-01-20

## Sarrera

Espazio publikoaren eta pribatuaren arteko harremanak ez dira inoiz errazak izan. Ongizatea defendatzen duen gizarte osasuntsu batean lehenengo espazio motak lehentasuna eta nagusitasuna izan beharko balu ere, bigarren espazio moten beharra ere nahiko argi dago. Berez, merkatu-sistema ekonomikoak nagusitasuna duen gure gizartean bi gune mota horiek modu orekatu batean elkarrekin bizitzen jakin behar dute, ekonomiaren esparruan ere erakunde publikoak eta enpresa pribatuak era osagarrian elkarbizitzan dauden bezala. Ondorioz, alde batetik espazio publikoak beharrezkoak diren bezala pribatuak eskaintzen ez dutena eskaini ahal izateko, bestetik pribatuak ere ezinbestekoak direla argi dago publikoak eskaintzen ez dituzten ondasun eta zerbitzuak ahalbidetzeko gizarteak ere beharrezkoak dituelako (Saunders, 2014).

Baina oreka egoki hori sortzea eta mantentzea ez da batere erraza eta sor litezkeen arazoak asko eta askotarikoak dira. Berez, azken urteetan publikoaren eta pribatuaren arteko oreka hautsi egin da, eta, ongizate-sistemaren beste hainbat arlotan gertatu den bezala —osasunean, hezkuntzan, edota segurtasunean, adibidez— arlo pribatua publikoaren eremuan sartu den neurrian haren esparruaren zati handi bat bereganatuz, orain badirudi egoera berdina espazio publikoaren eremuan ere gertatzen ari dela. Baina horrek ez du esan nahi espazio horien kudeaketa soilik erakunde publikoek egin behar dutenik eta, ondorioz, beraien lana beti ona eta egokia izango denik, tamalez, espazio horien kudeaketaren ardura soilik erakunde publikoena izan denean huts asko eta galantak egon baitira. Horrela gauzak, onartu

beharra dago espazioa kudeatzean behin baino gehiagotan arlo pribatuak gauza asko ongi egiten ikasi duela, agerian utziz espazioen kudeaketan erakunde publikoen gabeziak eta akatsak, eta horiek aprobetxatuz eremu publikoak askotan eskaintzen ez dituzten irtenbideak proposatzeko (Mozas, 2011).

Artikulu honetan espazio publikoen eta pribatuen arteko harremana gure testuinguru zehatzean aztertuko da, hau da, Euskal Herriko arkitektura garaikidean, azken urte hauetan publikoaren eta pribatuaren arteko harremanak sortutako zenbait proposameneta eztabaida aztertuz eta hausnartuz. Horretarako, artikuluaren lehen zatian, aurrena, espazio publikoak sortzen dituzten arazoak eta askotan izan dituzten akatsak eta hutsegiteak aztertuko dira; ondoren, bigarren zatian, espazio pribatuen apustuak deskribatuko dira, hots, aipatuko da nola saiatu diren konpontzen espazio publikoen gabeziak, baina baita nabarmenduz beraien ekimenean ere sor daitezkeen arriskuak ere, eta, azkenik, egoera bikoitza honen aurrean eta oreka egokia bilatu nahian, espazio publikoen etorkizun hurbileko erronkak aipatuko dira, espazio publikoak aurrera eraman ditzaketen irtenbideen inguruan hausnarketak proposatuz eta, bide batez, espazio publikoen aldarrikapena ere eginez<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Artikulu honetan jorratuko diren hainbat eduki, ideia, kontzeptu eta baieztapen oinarrituta daude Euskonews aldizkarian argitaratutako artikulu sorta batean, «Arkitektura garaikidearen erronka berriak Euskal Herrian» izenburupean 2013 eta 2014 urteen artean argitaratu zirenak. Bertan, hamaika artikulutan honako gai hauek garatu nituen: «Sarrera eta aurkezpena» (653. zenbakia, 2013/01-09/01-16), «Erabilera anitzeko eraikuntzen aldeko apustua» (657. zenbakia, 2013/02/06-13), «Eraikuntza sistemen eta materialen inguruko hausnarketa» (661. zenbakia, 2013/03/13-27), «Arrazionalismo abstraktua eta minimalismoaren garaipena» (663. zenbakia, 2013/04/10-24), «Adierazkor-



Irudia ~ Auza geurea da (el barrio es nuestro) Todo por la Praxis kolektiboak eginiko ez-eskultura.  
Egilea ~ Flickr r2hox CC BY-SA 2.0 (2013).



Irudia ~ Alhondeiga, Bilbo, R. Bastia (1905-1909)  
Egilea ~ Jose Javier Fernandez.

### Espazio publikoen arazoak

Espazio publiko bat gizarte baten gehiengo baterako modu egokian kudeatzea ez da batere lan erraza. Lehenengo lana espazioak bete behar duen funtzioak zein izan behar duen argi izatea da, eta funtzioa zehazteko orduan, gure ongizate-sistemak gizartearen gehiengoan pentsatzera behartzen gaituen neurrian, ez da erraza izaten haien diseinuan asmatzea, eta, ondorioz, askotan tamalez akats handiak egiten dira. Ohiko akats horien artean, artikulua honetan hiru nabarmenduko dira: azken urteetako espazio publikoen pribatizazioaren aldeko apustua, espazio publikoetan soilik diseinuaren eta estetikaren aldeko joera arriskutsua, eta, azkenik, espazio publikoetan gure klimaren eta eguraldiaren aferak duen garrantzia.

Artikuluaren sarreran aipatu den bezala, azken urteetan arlo pribatuak eremu publikoaren beste esparru batzuetan aurre egin duen bezala, espazio publikoarekiko ere handitu egin du bere eragina, eta, tamalez esparru hori ere geldiezina dirudien nolabaiteko pribatizazio-prozesu batean sartu da. Berez, egun nolabaiteko kontraesan bitxia suertatu da; alde batetik, zorionez azken urteetan gure herri eta hiri askotan espazio publikoaren tamaina eta kopurua asko handitu bada ere—neurri handi batean azkenean autoaren hedapena geldiarazi delako, eta erabaki horrek ahalbidetu du zenbait kale oinezkoen eskaintza eta herri eta hirien bilbeetan plazak eta parkeak ere gehiago txertatzea—bestetik erakunde publikoek espazio horiekiko eman duten erantzuna oso antzekoa izan da, hau da, enpresa pribatuei —nagusiki tabernei eta dendei— espazio publiko berri hauek alokairuan eskaini dizkiete beraien terrazak, mahaiak, aulkiak

tasun eta komunikazio dimentsioa salbuespen» (665. zenbakia, 2013/05/08-22), «Arkitektura jostun lana gisa ulertuta» (667. zenbakia, 2013/06/05-19), «Eskala txikiako arkitekturaren aldarrikapena» (669. zenbakia, 2013/07/03-17), «Eraikuntza zaharrentzat erabilera berriak» (674. zenbakia, 2013/10/02-16), «Eraikuntzen txertaketa testuinguru zabalean» (676. zenbakia, 2013/10-30/11-13), «Arkitektura talde lanen errealtatetik abiatuz» (679. zenbakia, 2013/12/11-25) eta «Arkitektura lanbidean ere erronka berriak» (683. zenbakia, 2014/03-05/04-02).

edota saltokiak ipintzeko aukera emanez, horrela espazio publikoa murriztuz eta kasu batzuetan mugikortasuna oztopatuz ere.

Baina espazio publiko horien diseinua erakunde publikoek beren gain hartu dutenean ere, tamalez, gehienetan arazoei eman zaizkienerantzunak ez dira egokienak izan, eta garai bateko —90eko hamarkadan nagusiki— «plaza gogor»ren diseinua izenekoa gainditu bada ere —eta Euskal Herriak ere moda horren hainbat adibide pairatu behar izan ditu—, oraindik arkitekto askoren artean espazio publikoak modu honetan diseinatzeko joera eta ohiturari eusten zaio, beste ezaugarrien artean natura eta erosotasunari tarterik eskaini gabe, eta soilik azaltzen da kezka espazioan kokatuta dauen zenbait bakarkako elementuren diseinu aproposaz —eserlekuak, paperontziak edota farolak, adibidez—, hots, soilik planteatzen dira espazio publikoaren eginbeharrak ikuspegi estetikoki batetik eta, ondorioz, gainerako gaiekiko hausnarketarik proposatu gabe.

Lurralde-eremu batean klima egokiaz hitz egitea ez da erraza, batzuentzat eguraldi ona izan litekeena beste batzuentzat eguraldi txarra delako, baina zenbait baieztapen ezin dira ukatu eta baztertzeko zailak dira. Horien artean Euskal Herriko klimaren zenbait ezaugarri —euria, hotza edota haizea, adibidez— kalean bizitzeko eta espazio publiko irekiak aprobetxatzeko aproposenak ez direla nahiko argia da. Berez, eguraldiaren ezaugarrien aurrean babestea, estalia bilatzea —publikoaren eta pribatuaren arteko eztabaida alde batera utziz, baztertuz— gizakiak bere jatorrian izan zuen erreakzio naturala izan da, eta, ziurrenik, arkitekturaren jatorria eta hastapenak ere hor aurkitzen dira. Eta horrela, gure aurreko belaunaldiak espazio publiko eta estalien beharra aurreikusten zuten neurrian, aurrena elizetako atariak erabiliz eta ondoren frontoiak estaliz, tamalez egun ez da bide horretatik jarraitu eta orain eskasak dira estaltzen diren espazio publikoak, eta, gainera, horrela egin izan denean —zenbait etxebizitza multzotako atarietan,



eta P. Starck (-2010).



Irudia ~ Surfaren eta Ozeanoaren Hiria, Miarritze, Steven Holl arkitektoaren lana (2005-2011).

Egilea ~ Jose Javier Fernandez

adibidez, edota hainbat eraikin publikotako sotoetan—, tamalez leku arriskutsu bihurtu izan dira, bertatik gizakien arteko elkarbizitza eta gizatasuna uxatuz.

### **Espazio pribatuen apustuak**

Espazio publikoen arazoan aurrean arlo pribatua zenbait gune eta espazio eskaintzen eta, itxuran behintzat, publikoak bihurtzen saiatu da. Horrela, espazio publikoen akatsak aprobetxatuz eta espazio mota horien beharra gizartearen badagoela aztertu ondoren, arlo pribatuaren jabetzak eta zuzendaritzak gabezia horri aurre egiten saiatu dira. Eta espazio publikoaren gabeziak asko badira ere, gure artean bat bereziki zabaldua eta hedatuta dago, eta hori nagusiki orain ikusi den bezala klimarekin lotutako afera izan da edota, beste modu batean adierazita, arlo pribatua aisialdirako gune aproposak behar direla ohartu da, erakargarriak izan litezkeen baliabideekin eta horien artean garrantzi handikoa izanik espazio estalien eskaria.

Azken urteetan Euskal Herriko arkitektura garaikidean garatutako espazio pribatuak aztertzen baditugu, aipatutako eskaintza hainbat tipologiatan aurki daiteke, ohikoena eta ezagunena izanik honako hauek: merkataritza-guneak, ikastetxe pribatuak eta museo pribatuak. Merkataritza-guneena adibide ezagunena da, XIX. mendean Parisen, Londresen edota Milanen sortu ziren estalitako denda-galerien ereduarekin jarraituz, hiri nagusien kanpoaldean kokatzen diren eraikin erraldoi horiek —Boulevard Gasteizen, Garbera Donostian, Itarua Iruñean edota Artea Leioan— saltokiak izateaz gain espazio publikoa eskaintzen baitute elkartzeko, aisialdirako, jolasteko edo atsedenerako, eremua eroso, atsegina eta estalia izanik. Hala ere, argi izan behar da eremu horiek publikoak soilik teoriarik direla, hau da, berez esparru pribatu batean aurkitzen direla, eta, ondorioz, izaera publiko bakarririk itxuran dutela, eta horrela izango direla beti beren helburu nagusia betetzen badute: dirua irabaztea, espazioak disfrutatzen den bitartean beraien

saltokietan ondasun eta zerbitzuak kontsumitu daitezten. Gainera, kontutan hartu behar da ere espazio pribatu horiek eskainiko dituzten ondasun eta zerbitzuak beti aukeratuak izango direla errentagarritasunaren irizpidearen arabera, inoiz ez gizakiaren eta gizartearen beste behar mota batzuk asetzeko asmotan.

Merkataritza-guneekin batera, arlo pribatutik badira beste eraikin mota batzuk espazio publikoak eskaini dituztenak, baina erabileran ere mugak ipiniz. Horrela, alde batetik, zenbait ikastetxe pribatuaren atari eta jolastokien estalkiak nabarmendu behar dira —ohikoa eta normala den bezala ikastetxe horien erabiltzaileei zuzenduak— azken urteetan Euskal Herriaren eremuan hainbat adibide txalogarri eta eredugarri eraiki baitira, haurren jolasei eta aisialdiari estalkia eskaintzeaz gain kalitatezko arkitekturaren bitartez lana eginez, Portugaleten Salestarren Ikastetxeko kirolgune eta jostalekuaren estalkiarekin gertatu den bezala (Garmendia Estudio)<sup>2</sup> edota Tolosan Laskurain ikastolan (Juan Jose Gurruchaga, Maria Gurruchaga eta Ander Auzmendi). Beste adibide batzuk zenbait museoaren eraikuntza berrietan ere aurki daitezke, Miarritzen Ozeano eta Surfaren Hiria (Steven Holl, Solange Fabiao arkitekto eta artistaren laguntzarekin) biltzen duen eraikinaren estalkia espazio publiko bat baita, eta Bilbon Guggenheim Museoaren (Frank Ghery) zenbait atal ere publikotzat har daitezke, nahiz eta nagusiak kudeaketa guztiz pribatua eta ordaindu beharrekoa duten.

Azken finean, ez da ahaztu behar kudeaketa pribatuen lehentasuna beti arlo ekonomikoak duela eta ez gizakiarekin eta gizartearekin harremanetan dauden beste mota bateko helburuak, ondorioz, eremu publiko batean kudeaketa bere gain arlo pribatuak hartzen duenean, erakunde publikoak bertan zuzenean parte hartu gabe askotan ere eremu publikoetan gertatzen den bezala gabeziak eta hutsuneak sortzen dira. Azken baieztapen horren adibide esanguratsu

<sup>2</sup> Artikuluan aipatuko diren eraikinen arkitektoen izenak edota arkitekto taldeak parentesi artean ipiniko ditugu eraikinaren izenaren ondoren.



bat Euskal Herriko hiri handien bilbe nagusien kale garrantzitsu askotan topa daiteke, asteko jaiegunetan edota arratsaldeko azken orduetatik aurrera tamalez «basamortu» bihurtzen baitira, bizirik gabeko gunek, finantza-erakundeak eta dendak nagusiki —multinazional handiak ipinitakoak— soilik ireki ditzaketelako auzo eta kale horietan salmentaguneak, nolabaiteko «monolaborantza» garatuz aberasgarriagoa den aniztasunaren aurrean (Fernandez de Betoño, 2014).

### **Espazio publikoen erronkak (eta bide batez pribatuena?)**

Bai espazio publikoen bai pribatuen gabeziak eta hutsegiteak artikularen aurreko bi ataletan aztertu ondoren, artikularen hirugarren eta azken atal honetan espazio publikoen etorkizuneko erronkak zehaztuko dira, horiek baitira gizarteak zuzenean eskura dituenak, hau da, zein arloren inguruan ahalbidetu beharko litzatekeen hausnarketa sakona, etorkizunean espazio publikoak erakargarriak izateko. Horrela, «bilbe» egoki bat osatu nahian hainbat erronka proposatuko dira, nahiz eta guztien artean loturak egon.

Espazio publikoak, alde batetik, hirigintzan beharrezkoak eta ezinbestekoak dira zatien eta alderdien arteko jostun-lanak egin ahal izateko eta, horrela, herri edo hirien bilbeak sortzeko; beste aldetik, gizarte batek hain beharrezkoak dituen beste «giza bilbeak» ere garatu ahal izateko eta sor litezkeen hiri eta gizarte «uharteak» —batzuk bestetik isolatutako auzoak, eta ez soilik fisikoki, baita gizarte-talde eta klase-sentimendurekiko ere, irizpide ekonomikoa nagusia izanik— saihesteko ezinbestekoak izan behar dute (Secchi, 2015). Ondorioz, espazio publikoak ez dira soilik diseinatu behar leku batetik bestera igarotzeko, hots, mugikortasuna errazteko, baizik eta batez ere elkarbizitzarako eta harremanetarako guneak sortzeko asmoarekin; horrela, hiritartasunaren kontzeptu zabalago bat eraikitzen da, gizatasuna izenda daitekeen sentimendua berreskuratzeko asmoz (Delgado, 2011).

Baina espazio publikoak herritarrek eta hiritarrek beharrezkoak dituzten neurrian, aipatutako hiritartasuna errazteko, garatzeko, erakunde publikoek ere, eta zehazki zenbait politikarik, ez dute espazio horiekiko beldurra izan behar —eta tamalez askotan horrela izaten da<sup>3</sup>—, eta, ondorioz, saiatu behar dute espazio publikoetan sortu eta gertatzen diren ekimenak ez oztopatzen, baizik eta onartzen eta ahalbidetzen, zeren aipatutako elkarbizitza eta harremanetarako aberasgarriak baitira eta gizarte indartsuago eta sendoago bat sortzen baitute. Ondorioz, eta aurrekoarekin lotuta, erakunde publikoek espazioak arlo pribatuari ez «saltzen» saiatu behar dute, espazio horien alokairua epe motz eta zuzenean ekonomikoki errentagarria bada ere; erabaki horietan ekonomiak ez du irizpide bakarra izan behar, eta askotan arlo pribatuaren kudeaketak eremu publikoa aberastu badezake ere osagarriak diren ekimenak proposatuz, esparru eta behar publikoek lehentasuna eta nagusitasuna izan behar dute pribatuen gainetik (Harvey, 2013)<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> Madrilgo Udalak hirian antolatzen diren manifestazioak gune bakar eta itxi batean biltzeko proposamena aztertu zuen aurreko urtean.

<sup>4</sup> HARVEY, D. (2013): *Ciudades rebeldes*, Akal, 2013.

Azken bi hamarkadetan erakunde publikoen aldetik espazio publikoaren defentsa kantitatearen aldetik egin bada ere — hirigintza-plangintza orokorretan horrela jaso eta babestu da—, orain eskarmentuarekin ohartu behar dute kantitatea baino garrantzitsuagoa dela kalitatea, hots, espazio publikoak eraikitzerakoan hausnarketa handiagoa egin beharra dago alderdi bai funtzionalak bai estetikoak elkartuz eta uztartuz, askotan kantitateak, hots, espazio handiek gizatasuna barik kontrako sentimendua sortzen baitute, bakardadea, isolamendua. Eta uztarketa lan hori egiteko ezinbestekoa da espazio publikoetan edukiak lantzea, hau da, egon litezkeen aukerak eta gai posibleak aztertu ondoren eduki egokienak jorratu ahal izateko, baina argi izanik espazio publikoak funtzio zehatz batekin sortzen direla, nahiz eta gero egunerokotasunak eta praktikak beste bideak eta aukerak ere eskainiko dituzten. Baina beste alde batetik, ezin da ahaztu honako hau: espazio publikoei ahal den etekin handiena ateratzen saiatu behar dela, erabilera desberdinak eta osagarriak ahalbidetuz eta txertatuz, ezin delako espazio publiko bat sortu soilik noizbehinka eabilgarria izateko, erabiltzeko urteko sasoiaren arabera edo funtzio zehatz bakar batekin lotuta, hau egun ekonomikoki jasanezina delako.

Horretarako, eta arkitekturaren ikuspuntutik, espazio horiek pentsatu eta diseinatzeko orduan aniztasuna ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da kontuan hartu beharko diren ikuspegi desberdinetan, eta, ondorioz, arkitekturaz gain beste lanbideetako profesionalen iritzia ere beharrezkoa izango da, elkarlana bultzatuz eta babestuz. Eta helburua izanik ahalik eta espazio publiko egokienak sortzea, gizaki eta gizartearen beharrak eta nahiak aztertu ondoren, orduan ere ezinbestekoa izango da herri eta hiritarrek proiektuetan parte hartzea, beraien proposamenak kontuan hartuz eta elkarlanetik erabakiak bideratuz, zeren orduan bereziki emankorragoak izango baitira proiektuak. Eta amaitzeko, aipatu behar da azken urteetan zenbait erronka kontuan hartu dituzten eraikuntza batzuk gure artean aurki daitezkeela —Portugaletako Pormetxeta plaza (Javier Fresneda, Javier San Juan eta Javier Peña), Bilboko Alondegia (Philippe Starck), Bilboko Mariaren Bihotza plaza (5+1 Estudioa) edo Galar Zendeako hornidura-eraikin berria (Itziar Iriarte eta Pedro Mariñelarena), adibidetakoa batzuk izanik— eta denborarekin gehiago azalduko direla ziurra da. Guztion parte-hartzea ezinbestekoa dela argi izanik egoerak beti hobera egiten duelako, azken finean, ez da ahaztu behar «Auzoa gurea dela»<sup>5</sup>.

5 El barrio es nuestro izenburua daraman lanak Madrilgo Palomeras Bajas Auzoko Bizilagun Elkartek azken lau hamarkadetan aurrera eraman duen borrokaren testigantza eta omenaldia izan nahi du, esaldi hori izan baita Auzo Elkarteko kideek gehienetan aldarrikatu duten leloa, aurrez aurre izan dituzten erakunde publiko eta pribatuaren interesen aurrean. Ondorioz, Todo por la Praxis kolektiboari lan berri bat eskatu zitzaionean auzoan bertan kalean kokatuta dagoen Estalperik Gabeko Eskultura Museoa ipintzeko, arkitekto eta artistez osatutako Madrilgo lan talde honek auzokideen lelo ezaguna lana bera izatea erabaki zuen eta materiala auzoko etxebizitzetan ohikoena, xumeena eta adierazgarriena izan dena aukeratu zuten, hots, adreilua. Lana, printzipioz, behin-behineko parte-hartzea izateko pentsatuta bazegoen ere —zehazki 2013. urteko hiru hilabetetarako— auzokideak lana behin betikoa izatea eta auzoan geratzea nahi izan dute.

### Bibliografia:

- Delgado, M. (2011): *El espacio público como ideología*, Libros de la Catarata, Madril.
- Harvey, D. (2013): *Ciudades rebeldes*, Akal.
- Fernandez de Betoño, U. (2014): *Hiri gara*, Asterio, Donostia
- Mozas, J. (2011): *Rashomon. La triple verdad de la arquitectura*, a+t, Gasteiz.
- Saunders, D. (2014): *Ciudad de llegada*, Debate, Madril.
- Secchi, B. (2015): *La ciudad de los ricos y la ciudad de los pobres*, Libros de la Catarata, Madril.

///